

BOTEREA NICCOLO MACHIARELLI BAITAN

Paulo Iztueta

Gure lan honi muga zehatzak jarri nahi dizkiogu alde zurretik. Ez goaz hemen Machiarelli-ren obra osoa aztertzeraz, ezta beraren pentsamendua orotara besarkatzeraz ere. Hemen soilki **Il principe** aztertuko da, berrikitan Iñaki Azkunek **Printzea** izenarekin euskaratu duena.

Zuzenean aipaturiko lan horrekin sartu baino lehen, Machiarelli bere garaiko giroan lekutzen ahaleginduko gara, beraren mezua hobeto ulertuko bait da Europan une hartan egosten ziren gertakari politikoen argitan.

Testuinguru historikoa

Zer-nolakoa zen Europaren egoera XV. mendearen bukaeran eta XVI. mendearen hasieran? Nolakoa genuen orduko gizartearen egitura politikoa?

Galdera horiei buruzko erantzunak arestian aipaturiko epealdi horri dagozkion ezaugarri batzu deskribatuz gauzatuko ditugu. Baina, atariko gisa, esan dezakegu XV. mendearen erdialdera Aita Santuaren absolutismoa birpiztu egin zela eta, aldi berean, botere monarkikoak sekulako indarra hartu zuela Mendebaldeko ia Europa osoan zehar. Erdi Aroko sistema politikoa, jakina denez, nobleziak, parlamentuek edo estamentuek eta kleroak osatzen zuten eta sistema hau goitik behera zetorren errege-boterea indartuz eta hedatuz zihoan heinean. Feudo-jauntxoek eta korporazioen eskuetan barreiatuak zegoen botere politikoa monarkaren eskuetara pasa zen. Monarka hori izan zen gero eta indar handiagoa hartuz zetorren batasun nazionalaz gehienbat baliatu zena. Subirano bat, kasu honetan erregea, zen botere politiko ororen iturria. Pentsamendu politiko hau nagusitu zen XVI. mendean.

Pentsamendu eta praktika mailan gertatutako aldaketa politiko horiekin batera, beste batzu ere ezagutu ziren Europako gizarte osoan. Eta aldaketa hauek, nahiz eta lekuan lekuko berezitasunak kontuan hartzekoak izan, leku guztietan antzekoak izan ziren.

1. Aldaketa ekonomikoak

Oso nabarmen izan zen XV. mendearen azken aldera ekonomia mailan gertatutako aldaketa. Iraultza baten parekoa. Erdi Aroko erakundeak birmoldatu beharra ekarri bait zuen. Erdi Aroko gizartea, beronen antolakuntza ekonomiko eta politikoari zegokionez, ia erabat lokala zen. Eta halaxe zen, hain zuzen ere, komunikabideen mugek areagoko biderik ematen zutelako. Merkataritza ere nagusiki lokala zen edo, lokala baino handiagoa zen kasuetan, merkantzia jakin batzu bide finko batzutatik barrena eramaten ziren eta gero portu eta merkatu monopolizatueta uzten. Merkataritza hori ekoizleen gremioak kontrolatzen zuen edo, bestela esanda, udal-erakundeen eskuetan zegoen. Merkatal antolakuntzaren unitatea Erdi Aroan, hiria zen. Mugimendu-askatasunik ez zegoen eta monetarik ere ez zen erabiltzen eskuarki XIV. mendean.

Merkatu-askatasunak hautsi zuen goian deskribatu dugun ekonomi sistema hori. Edozein merkatuk eskaintzen zituen abantailaz baliatzen zekien eta negozioetan kapital bat jartzeko gertu zegoen merkataria biltzen zituen mozkin handienak sistema berri honetan. Merkataria abenturazale honek bere menean zeuzkan merkatuak eta pixkanaka-pixkanaka ekoizpenaren kontrola bereganatuz joan zen. Azkenean, gremioen eta hirien eremutik at geratzeraino iritsi zen. Honela, merkatuaren eremua hedatu zenean, merkataritza kontrolatu, merkantzien kalitatea tipifikatu edo prezioak

erregulatu beharra ekarri zuen eta eginkizun berri hauek, noski, Erdi Aroko udal mailako gobernu-eremua hedatu beharra zekarten ondorioz. Europako gobernu monarkiko guztiek eginkizun berri honi ekin zioten eta, ekonomiaren arloan, bide berriak urratu zituzten, hala nola: baliabide nazionalen ustiapen-politika, merkataritza barrukoaren nahiz kanpokoaren sustaketa eta botere nazionalaren garapena.

2. Aldaketa sozio-politikoak

Aldaketa ekonomiko horiek ondorio sozio-politiko sakonak ekarri zituzten. Erromako inperioa eroriz geroztik, Europako gizarteak orduan ezagutu zuen lehen aldiz jende diruduna eta enpresa-izpiritua zeukana. Jende-mota hau, jakina, noblezia eta aristokraten etsai naturala zen. Beren interesak zaintzeko, gobernu indartsu baten beharra zeukaten, indartsua bai herrialde barruan bai kanpoan, eta horregatik ziren erregearen aldekoak. Burgesia honek begi onez ikusten zuen botere militarra eta justizi administrazioa monarkaren eskuetan kontzentratzea. Jokabide honi onuragarri zeritzon, sistema horretatik abantaila ekonomiko handiagoak bait zetozkion.

3. Absolutismo modernoaren garapena

Burgesia noblezia feudalari nagusitu zitzaion eta, honela, XVI. mendearen hasieran monarkia absolutua zen Mendebaldeko Europako gobernu-mota nagusia. Monarkia absolutuak konstituzionalismo feudala

eta hiri-estatu libreak uzkaile zituen, Erdi Aroko zibilizazioaren zutabeak, hain zuzen. Eta indarrez uzkaile ere, sua eta odola nahasian zirela. Gero nazionalismoak gauza bera egingo zuen monarkia absolutuari sorrera eman zion legitimitate dinastikoarekin. Eliza, Erdi Aroko erakunde guztietan nabarmen eta garrantzitsuena, monarkiaren eta beronen indar sozialen meneko geratu zen. Monastegiak, aberatsak eta ahulak batera, espropiatu edo desjabetu egin zituzten monarkiek eta berorien aberastasunak erdiko klase berriari eman zizkieten. Eliz agintariak erregearen kontrolpean erori ziren eta, azkenean, elizaren agintaritza juridikoa desagertu egin zen.

Monarkia absolutuaren garapena Mendebaldeko Europako ia herrialde guztietan gertatu zen.

Espanian, Fernando eta Isabel Errege Katolikoek ezkontzarekin, Aragoi eta Gaztelaren arteko batasuna gauzatzen da. 1492an Granada konkistatzen dute; 1515ean, hil baino urtebete lehenago, Fernando-k Nafarroa bereganatu zuen. Errege Katoliko hauekin hasi zen Espainia XVI. mendean zehar Europako potentziarik handienetako bat izateraino eramane zuen monarkia absolutua.

Ingalaterran 1485-1509 epealdian eman zitzaion hasiera Tudor dinastiaren absolutismoari; horren barruan sartzen dira Enrike VIII.aren erreinualdi osoa eta Isabelen erreinualdi-zati bat. Ingeles monarkia honek ezin zuen garaipenik

lortu erdiko klasearen laguntzarik gabe. Honela, merkataritza sustatu zuen, baita itsas enpresak ere; bestalde, seguruago sentitzeko, Komunen Ganbara desegin zuen, horren barruan oraindik indar handia bait zuen nobleziak.

Adibiderik tipikoena, inolako dudarik gabe, Frantziak eskaintzen digu. Errege-botererik zentralizatuena bertan kausitzen dugu. Errege-boterea aski sendotuta zegoen XV. mendearen erdialdean. Frantzia zen Europako naziorik batuena, konpaktoena eta harmonikoena. 1439ko ordenantzak nazioko indar militar guztia monarkaren eskuetan jarri zuen eta zerga nazional bat ezarri zen erregearen agintaritza sendotzeko eta indar militarri eusteko. Honela sortu ahal izan zen hiritarren armada bat, ongi gertutua eta ongi ekipatua zegoena eta ingelesak bertatik ohiltzeko aski indartsua zena. XVI. mendea bukatu baino lehen feudo-leku handiak menpean hartuak zeuzkan monarkiak, hala nola Bourgogne, Britainia eta Anjou.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, Gaston Foix-ekoak 1449an okupatu zituen Lapurdi eta Zuberoa eta hurrengo urtean, Ayherreko Tratatuaren indarrez, bi lurralde horiek Frantziako erregearen agintaritzapean zeuden; Nafarroa Beherea Karlos V.ak Albret etxekoen eskuetan utzi zuen eta, honela, Nafarroa Garaia eta Beherea bananduta geratu ziren.

4. Italiaren arazoa Machiavelli-ren garaian: gainbehera

Autore askorentzat, frantses inbasioaren urtea, 1494. urtea alegia, Italiak erabat lur jo zueneko unea da. Machiavelli-k idazten zuen garaian, Italia bost estatu handitan zatitua zegoen: hegoaldean Napoli-ko erresuma, iparmendebaldean Milano-ko dukerria, iparrekialdean Venezia-ko errepublika aristokratikoa, Florentzia-ko errepublika eta Erroman pontifize-estatuak. Urte horretan, 1494ean alegia, frantses inbasioak bost estatu handi horien arteko oreka-sistemaren porrota ekarri zuen. Oreka hori, bestalde, indar kontserbatzaileen artekoa izan zen. Italiako politika oinarrizko egiturak eta indarrean zeuden gizarte-harremanak betikotzera zuzenduta zegoen. Sistema honen lur jotzeak, beraz, aro berri baten hasiera zekarren. Aro honetan, batetik, Italiako klase zuzendaria atzerriko (Frantzia eta Espainiako) monarkia berrien azpian egon beharrean aurkitzen da eta, bestetik, monarkia ezartzen da klase zuzendariaren menerapena bermatzen duen gobernu-forma gisa. Ikusten da sektore "herritarak" ez direla gauza, ez Florentzia-n ez gaineratiko beste estatuetan, gutxiengo oligarkiko-patrizioari botere politikoa kentzeko eta, bidenabar, Estatuaren funtzionamendua onartu eta antolatzeko. Hauxe da Florentzia-ko Errepublikaren porrota eta, nolabait, Machiavelli-ren beraren porrota. Aipaturiko urte horrekin irekitzen den epealdia benetan esanguratsua da: orduan hasten dira Italiako odolezko gerrak, Frantziaren eta Espainiaren arteko etsaigoak penintsulaz nor jabetuko

borrokan, Aita Santu gerrazale eta politikari maltzurren (Alexandro VI., Borgia, Julio II., Medici-tarren jatorriko Aita Santuen) politikagintza.

Italiako bizitza ekonomikoa eta gizartea nekazal izaerako bihurtzen dira. Manufaktur eta finantz burgeseria, lehen Europan hegemonikoa izandakoa, Europan indarrean zeuden baldintza berrien aurrean atzeratuta geratzen da. Inbertsioak nekazaritzara, ondasun higiezinetara eta luxuzko kontsumora zuzentzen dira; Ingalaterran, Herbehereetan eta Frantzian merkatal eta industri abiaduraren oinarriak eratuz doazen unean industria geldirik aurkitzen da; bankak eta finantzak atzera egiten dute bankari berrien aurrean, adibidez, alemanen aurrean. Urritasuna sentitzen da aldizka.

Florentzia-ko filosofi eta kultur giroak hau biltzen eta adierazten du. Humanismo zibila genuen aristokrazia hiritarraren filosofia errepublikarra. Greziar eta erromatarren garaiko kultura eta artea birpiztu zituen (hortik dator "birpizkunde" edo errenazimentu izena) joera filosofiko honen goren puntua XV. mendearen lehen erdialdian eman zen. Errepublikako Salutati eta Bruni kantzelariek, hain zuzen ere. Humanismo honek, Alamanno Rinuccini-ren *De libertaten* adierazten den bezala, aski garbi salatzen du Lorentzo bikainaren tirania. **Vita civilis, libertas republicana** eta arazo kolektiboetan partehartzea, etab., guzti hori abstrakzio eta ipuin erretoriko bat besterik ez dela esatera dator aipaturiko autore hori.

Medici-tarren garaian, bereziki Lorentzo Bikainaren garaian (1469-1496), Ficino-ren platonismoa indartzen eta nagusitzen da. Boterearen babesa du eta ikuspegi nagusiki kontenplatibo, transzendente eta kosmologikoko platonismo magiko-astrologiko hau garai hartako kultur giroari erantzuten diona da. Sektore ikasiei dagokien filosofia ilustratu honek bere esperantzak jarririk dauzka oso hurbil ikusten den edo jadanik hasia den gauza guztien erabateko "berriztapen"ean, bake eta konkordia unibertsalen instaurazio berehalakoan. "Berriztapen unibertsal"ari buruzko azalpen platonikoa funts-funtsean desberdina bada ere autore desberdinetan (adibidez, Ficino, Pico, Landino, Egidio Viterbo-ko eta abarrengan), guztiok badute batera zerbait: hots, Italiako bizitza eta bereziki Florentzia-koa, XV. mendearen azken laurdenetik hasita, gogorki astintzen dituen krisi-sentimendua jasotzen dutela eta kapa herritar horien adierazpen ideologiko-filosofikoa korronte profetiko-apokaliptiko-milenaristetan kokatzen dela. Mugimendu honen adierazpenik garrantzitsuena izan bide daiteke Savonarola-ren fenomeno konplexua; honek, masa herritarren ezinegona eta haserrea jaso, gizakia eta Eliza erabat eta osoki garbitzea eta eraberritzea eskatzen zuen. Zentzu honetan, Machiavelli-ren pentsamendua kultur giro orokor honen seme da; hala ere, honek, gero ikusiko dugun bezala, berrikuntza ez du bideratuko erlijioaren ildotik, Savonarola-k egin nahi zuenaren antzera; aitzitik, berrikuntzaren eremua erlijio eta eklesiologiatik politika eta Estatuaren

eremura pasatzen du. Hortxe datza, hain zuzen, beraren berezitasuna.

Sarri-sarritan "berriztapen" ideia hori astrologiari lotua agertzen zen. Hau da, gizarte berri baten abiada ziklo zerutar berri baten abiadarekin bateginda aurkezten zen, oso zabaldurik bait zegoen astroek lurrekoen eta gizakien munduan eraginik bazutela. Arras modan zegoen "kojuntzio zerutar handien" doktrina; honen arabera, politikan nahiz erlijioan gertatzen ziren aldaketak (goraldiak eta beheraldiak) ziklo zerutarren eta bereziki goi-planeten kojuntzio handien ondorio gisa gertatuak izan bide zitezkeen. Hain zuzen ere, sineste hau herriaren bihotzean zein sarturik zegoen ikusteko, merezi du gertakari hau aipatzeak: pentsatzen zen 1484ean Jupiter eta Saturno-ren kojuntzio handia emango zela Eskorpion eta, Florentzia-ko zirkulu platonikoetan nabari zenez, orduan gertatuko zen, inolako traumarik eta oinazerik gabe noski, "berriztapen unibertsal" a. Urte horretako apirilean Giovanni Mercurio da –Correggio autoizendaturiko profeta– zaldi gainean ibili zena Erromako kaleetatik barrena esanez bazetozela munduaren eraldakuntza eta urrezko aroa. Savonarola sermoilariaren itzala oso sarturik zegoen Florentzia-ko herrian jadanik 1490az geroztik. Monje dominiko honen ustez, ustelkeriak gaina jo bait du Italia eta Florentzia-n, garaia heldu da Jainkoak parte har dezan. Jainkoaren partehartze hau, uste denez, berehala gertatzekoa da. Bi fase izango ditu: lehenengoan, Elizan dagoen ustelkeria zigortuko da eta,

zigor horren adierazle gisa, Italia osoa, Florentzia eta Erroma birrinduak izango dira gerra eta pesteen bidez; bigarrenengoan, garbiketa hori egin ondoren, jentilak kristautuko dira eta gizateriak bakea eta batasuna eskuratuko zituen Eliza bakar baten barruan. Eta horrekin batera, Florentzia-k boterea eta aurrerapena ezagutuko zituen.

Uhin profetiko eta milenaristaz edo korronte eskatologiko hauek ez dira desagertzen Italiatik ezta Savonarola 1498an sutan erreta gero ere. Machiavelli-k ere krisi hori bizi eta ikusten zuela, nahikoa garbi ageri da *Printzea* liburuan, XII. atalean.

Italiaren egoera politikaren aldetik begiratuta, esan behar da Machiavelli-ren garaian Aita Santuen estatuak zirela Italiako estaturik sendoenak eta iraunkorrenak. Ezduinak eta libertinoak izan ala ez izan, gauza zen Aita Santua Italiako gobernari bat gehiago zela ikusten zutela Europako politikariek. Honela, kristantateko eztabaida guztietan arbitro gisa jokatu zuen Eliza honek Italiaren Erdialdeko subiranotasuna lortu zuen. Eliza ez zen aski indartsua Italiaren batasuna lortzeko; aski indartsua eta abila zen, alabaina, beste gobernariaren batek batasun nazional erdiets zezan galerazteko eta, beraren nazioarteko harreman politikoak zirela bide, atzerriko politikariei sarrera emateko. Machiavelli-ren ustez, Italian garai hartan gauzak zeuden bezala baldin bazeuden, egoera horren erantzule nagusia, Eliza bera zen.

Machiavelli-ren bizitza eta pentsamendu-eboluzioa

Ikerketa biografikoez hiru arotan banatzen dute Machiavelli-ren bizitza eta berorren lana. Bakoitzaren berezitasunak banaka emango ditugu hemen jarraian, Miguel Angel Granada autoreak dakarrenari segituz:

Lehen urteak (1469-1498)

Bernardo Machiavelli notariaren semea, 1469ko maiatzaren 3an jaio zen Florentzia-ko herrian. Dirudienez, aitaren bizibideak ez zuen ematen diru-sarrerara handirik. Etxeko kultur giroari dagokionean, aitak, lege-liburuak aparte, bazeuzkan beste batzu ere, hala nola: Zizeron, Biondo, Ptolomeo, Aristotele, Prisziano, Juliano, Tito Livio eta abarren obrak. Hauetatik batzu bereak eta beste batzu utziak. Machiavelli-ren aitak, garai hartan oso normala zen bezala, oso etxekoa zuen kultura humanista.

Ez dakigu Machiavelli semeak nolako ikasketak egin zituen. Beraren aitaren egunkarian datorrena jasoz, dakigun pittintxo da gaztetan latina ikasten hasi zela. Gero zer? Ez jakin. Dena dela, pentsatzekoa da beraren heziketak garaiko oihartzun humanistak jasoko zituela. Dirudienez, ez zuen grekoa ikasi. Ezagunak zituen Florentzia-ko hiru poeta hauek: Dante, Petrarca eta Boccaccio. Bestalde, begiko zitzaizkion autore latindarrak (Justino, Biondo, Tito Livio, Terentzio) eta, latinezko itzulpen-bidez, autore grekoak (Platon, Aristotele, Jenofonte, Tuzidide, Polibio, Diogenes Laerzio-

ko). Hala ere, esan behar da Machiavelli-k zer irakurtzen zuen eta zer ez, ez dakigula ezer ziurtasunez. Hori bai, Machiavelli-k bere eskuz kopiatutako Lukrezio-ren *De rerum natura* agertu da eta honek eman dezake, agian, haren kezka filosofikoen berri. Lukrezio gazte denboran ezagutzeak argitasunik eskain diezaguke Machiavelli-ren zenbait ikuspegi aztertzeko, adibidez, giza izaerari buruz, gizartearen sorrerari buruz, anbizioari buruz, etab. i buruz.

Esan izan da Machiavelli-ren pentsamendu politikoa Italiako **Quattrocento**-ko zenbait pentsalarirengan barruraino sartuta zegoen aristotelismo ez-ortodoxoaren zordun dela. Eta zehazki, giza izaera errealitate esplikagarria dela dioen puntuari dagokionean, horretan omen zaio zordun Machiavelli korrante horri. Egia da, Machiavelli-k berak esanda, ez zuela irakurri Aristotele-ren *Politika*; baina horrek ez du esan nahi elementu aristotelikoak beste bide batzutatik bereganatu ez zituenik.

Oro har, esan daiteke Machiavelli-ren kultur erroak ez daudela Erdi Aroan, baizik eta, Errenazimentuko pentsalari zenez, Antzinate klasikoan eta, horren barruan, gehiago erromatarrean grekoan baino. Gehienbat Tito Livio eta Tazito izan zituen gogobidelari; neurri txikiagoan Salustio, Plutarko, Seneka eta Virgilio.

Bestalde, Savonarola-ren urratsak oso hurbiletik segitzen zituela eta ez zela beraren gogakide, berak eginiko eskutizetan dator aitorpen hori. Hain

zuzen ere, haren heriotzak eman zion Florentzia-ko politikagintzan sartzeko aukera. Savonarola-rekin batera, kantzelaritzako beste hainbat funtzionari jautsi ziren, horien artean Ser Alexandro Braccesi, bigarren kantzelaritzako idazkaria; honen lekua bete zuten Machiavelli-k 1498an. Kargu honetan gerra-arazoez, nazioarteko harremanez eta milizia hiritarraz arduratu zen.

Florentzia-ko idazkari (1498-1512)

Politika modernoari buruzko ezagutza esperientzia luze baten ondotik lortu duela esaten digu Machiavelli-k bere *Printzea* liburuan, Eskaintza-Gutunaren hasieran: "lunga esperientzia delle cose moderne". Esperientzia luze horren epealdia 1498tik 1512ra bitartekoa da, idazkari-lanak egiten egon zen garaikoa. Orduan hasi zen lantzen bere pentsamendu politikoa Italia eta Florentzia-ko errealitate politikoa-rekin harreman zuzenean. Horretarako kargu aproposa zeukan. Florentzia-ko Estatu barruan alderdi administratiboan zegoen eta berari legegintzako magistraturek erabakitakoa idatziz erregistratzea eta betetzea zegoen.

Baina Machiavelli-ri bere "esperientzia luze" horiek **Dieci di Balía** direlakoan idazkari izatetik zetozkion, behin baino gehiagotan ordezkari gisa bidalia izan bait zen Florentzia-ko Errepublikaren izenean. Batzutan bakarrik, bestetan lagunduta. Nora? Frantziara lau aldiz joan zen bederen: 1500, 1504, 1510 eta 1511n;

Alemaniarara ere bai 1508 eta 1509an. Ordezkaritza hauen bidez jasotako irakatsiak lantxo labor batzutan bildu zituen. Hona hemen lekuko: *De natura fallorum* (1504), *Rapporto delle cose della Magna* (1508), *Discorso sopra le cosse della Magna e sopra l'Imperatore* (1509), *Ritratto delle cose di Francia* (1510), *Ritratto delle cose della Magna* (1512).

Dudarik ez, ibilaldi hauetan Machiavelli-k asko ikusi eta ikasi zuela. Frantziako esperientziak lehen Estatu modernoarekin harremanetan jartzeko bide zuzena eman zion; Alemania inperialeko esperientziak, aldiz, Erdi Aroko sistema feudalaren kontrapuntua eskaini zion. Eredua, noski, Frantziaren botere ongi finkatua eta antolatua zitzaion, Estatu baterakoi eta zentralizatu hura alegia, erregeak administrazioa bere esku zeukan huraxe bera. Ohartu zen, halaber, armada ez-feudal iraunkor batek eta finantzen saneamenduak atzerriko politikan duten indarraz eta garrantziaren handiaz. Frantzian, hain zuzen, Italian gertatzen zenaren arras bestelako egoera ikusten zuen. Boterea, indarra eta dirua: hirukote horretan datza politikaren giltzarria. Beste guztia kontu hutsa besterik ez da. Horixe zen Machiavelli-k Frantzian ikasi zuena.

Inperioaren kasuan, Machiavelli-k Frantziarekiko kontrasteak jaso zituen. Honela, Frantzian, erregea buru zela, "humore" edo estamentu desberdinen arteko indarra, kohesioa, batasuna eta oreka nagusitzen zen; Alemanian, berriz, zatiketa, harmoniarik eza eta desoreka nabarmentzen zen; azken

honetan, hiru "humore" edo estamentu hauek (enperadorea, hiriak eta printze feudalak elkarren artean borrokan dabiltza eta enperadoreak ez du indarrrik ez batasunik bere politika markatu ahal izateko.

Borgia-rekin ere ordezkartzako harremanak izan zituen bi txandatan 1502an. Borgia-k Florentzia mehatxupean zeukan, adieraziz bertan **Medici**-tarrak berrezarriko zituela. Cesar Borgia bilakatuko da Machiavelli-rentzat bere "principe nuevo". Honengan politikaren izaera basati eta maltzurra kausitu zituen. Ohartu zen, politikan aurrera egingo bada eta botereari eutsiko bazaio, ezinbestekoa dela fedearen, moralaren eta erlijioaren kontrako portaera eramatea. Politikagintzari funtsezkoak zaizkio erretorikaz baliatzea eta itxurak egitea. Negoziaketa batean, beraz, batetik paktuaz hitzegiten da eta, bestetik, gerra gordetzen da. Aurpegi anitzeko jokua da nagusi eta gidari.

Bestalde, **miliziaren** erreklutamendua egiteaz bera bait zen arduraduna, Pisa birkonkistatzeko arazoaz gogoeta batzu egin zituen eta hauek *Discorso fatto al magistrato dei dieci sopra le cose di Pisa* lanean bilduta utzi dizkigu. Florentzia-ko politika-jokabidearekin ez datorrela ados ageri da bertan, politika horretan ez bait ziren ontzat hartzen ez indarraren balioa, ez erlijioaren kontrako prozedurak erabili beharra ez armada propio baten beharra. Ohar historiko gisa esan dezagun Pisa ehun urtez florentziatarren menpe egon zela (ik. *Printzea*, V. atala) eta miliziak

1509an berreskuratu zuela. Azken asaltoko une desberdinetan eginkizun nabarmena jokatu zuen Machiavelli-k; ez asalto honetan bakarrik, baita miliziaren antolakuntzan bertan ere.

Aita Santu Julio II.ak, Venezia-k eta Espainiako Fernando Katolikoak osaturiko Liga santuaren aurrean Frantziak porrot eginda gero, Florentzia-n Errepublikak eta Soderini jautsi egin ziren 1512an eta, botereaz berriz ere **Medici**tarrak jabetzean, Machiavelli kargurik gabe utzi zuten.

Aisialdi bortxatua edo idazki politikoen sorkuntzaldia (1512-1527)

Lanik gabe eta diru eskasian geratzean, badirudi orduan hasi zela Florentzia-ko porrotaren zergatiaz gogoeta teorikoak egiten. Florentziatik zazpi bat milara edo, Percussina-ko herrian, Sant' Andrea-ko bere etxean sartuta, bere buruarekin bakarrik, idazteari ekin zion. Honela, 1513ko uztailetik abendura arteko epealdian, idazten ari zen *Discorsi* lehen liburua 17. edo 18. atalean bere hartan utzi eta, hasi eta bukatu, *Il principe* famatua burutu zuen.

Politikagintzan eramandako hamalau urtetan zehar pilatutako jakituria, irakurketa eta gogoetetan oinarritzen dira bai *Discorsi* eta bai *Il Principe* liburuak. Machiavelli bere pentsamenduaren heldutasunera iritsi da eta Italiako krisi politiko-sozialaren kausez galdetzen du orain. Krisia zergatik ematen den aztertu eta hori gaingintzeko bide eraginkorra zein izan daitekeen proposatu: horixe da, hain

zuzen, *Il principe* liburuan planteatzen den arazoa. Azken batean, Machiavelli-k politikaren zientzia eraiki nahi du, ekintzara bultzatuko duena. Darabiltzan argumentu teorikoetan, ia obra guztian zehar eta, bereziki, XV. atalean, humanismoarekin hautsi egiten du.

Machiavelli-k, *Il principe* idaztean, bi helburu lortu nahi zituen: batetik, Florentzia-n boterea hartu berria zuten **Medicitarren** adiskidantza erdietsi nahi izan zuen eta ahaleginak egin zituen, zentzu horretan, Francesco Vettori adiskideari gutun bidez lankidetzaren eskaintza adieraziz, baina alferrik; bestetik, liburua **Medicitar** Lorentzo-ri eskaintzean, hego zabaleko helburu politikoa zuen gogoan, zeren uste bait zuen Lorentzo, berau gazte izanik, izan bide zitekeela printze berri hori eta, beraz, baliagarri gerta zekioketela liburu horretan mamitzen zuen esperientzia aberatsa; baina amets hau ere ustel atera zitzaien, Lorentzo-k ez liburua ez egilea hartu bait zituen gogoan. Bi helburuen lorpenean erabat huts egin zuen, beraz.

Baina gero etorriko ziren politikariek ez zuten huts egin. Egia bada ere XVI. mendean Machiavelli-ren lanaz ia inor ez zela ohartu, XVII. mendetik aurrera gogoeta politikoaren erdigune bilakatu zen Europako herrialde desberdinetan. Batzu alde, besteak kontra. Baina Machiavelli-ren mezua beti eztabaidagai. Francis Bacon-ek esan zuen hura datorkigu gogora: "Machiavelli-ri eta bera bezalako gizonei asko zor diegu, hauek gizonek egiten dutenaz idatzi bait zuten eta ez egin beharko luketenaz".

Sarrera orokor honekin, sar gaitzen *Printzea* lanaren barruan.

Machiavelli-ren diseinua: Printzea

Lehen esan bezala, *Printzea* lanari lotuko gataizkio, lan mamitsu hau hegi desberdinetatik aztertuz. Batipat hiru puntuok edukiko ditugu gogoan: lanaren literatur izaera, egitura formala eta tesiak.

Obraren literatur izaeraz eta prozeduraz ohar orokorrak

a) Tratatu eta borroka-testua

Printzearen literatur generoaz ari garelarik, burura datorkigun lehen galdera hau da: non kokatzen da *Printzea*? Zer da zuzen, tratatu bat ala borroka-testu bat? Leo Strauss-ek (1982, 82-83; 89) dioenean oinarrituz, esan beharko da *Printzeak* bi alderdi horiek dituela batera: borrokarena eta tratatuarena.

Machiavelli-k berak, *Discorsi* lanean *Printzea*-ren aipamena egiten duenean, "tratatu" izena ematen dio. Eta zentzu batean, halaxe da, izan. Izaera orokorreko ezagugai edo irakatsi bati buruz dihardu arrazoitzen eta gogoetak egiten. Eta horretarako edozein trataturi dagokion prozedura segitzen du bere lanean: plangintza zehatza, argumentazio zuzena, azalpen sailkatua eta orekatua. Gero azalduko dugunez, plangintza honek bere zatiak ditu. Areago: Machiavelli-ren lan hau tratatu "eskolastiko" a ere badela esaten da, lakonikoa eta konbentzionala. Sarrerako Atalean, hain zuzen, tratatu

akademiko eta eskolastiko baten tonua hartzen du. Baina, bestetik, borroka-testu baten jitea du. Alderdi hau oso garbi ageri da liburuaren azken partean. Azken bi atalak kutsu patriotikoa dutenak dira. Italiako nazioari askapen nazionalerako deia egiten zaio, ekintzarako proposamena.

Printzea-k literatur genero aldetik, izaera berezia aurkezten du: batetik, hasierako atalen idortasun eskolastikoa daukagu eta, bestetik, azken ataleko lirismoa, Italiako poema patriotiko batetik ateratako aipu batean oinarritzen dena. *Printzea*, orain arte esandakoak nolabait laburbilduz, esan dezakegu bi genero tradizionalen arteko zerbait dela, aldi berean tratatu eskolastikoetatik eta poema patriotikoetatik elikatzen den zerbait, alegia. Kanpokaldea tradizionala du; barrukaldea, iraultzailea. Hemen "iraultzailea" hitza darabilgunean, zentzu zehatzean darabilgu. Hau da, "iraultzaile" a, orain substantibo gisa hartuta, ezarritako lege baten aurrean aurkitzen da eta egin nahi duena da lege hori irauli, lege hori birrindu, horren lekuan beste lege bat jartzeko, beraren ustez hobea dena, noski. Horixe zen Machiavelli-k proposatu asmo zuen iraultza. Lege berri hori "principe nuevo" k daraman soineko idealean gauzatzen da.

b) "*Printzea*" testu historiko eta zientifikoa al da?

Zenbait autorek, *Printzea*-ren edukiaz beren judizioak jaulkitzen dituztenean, "zientifiko" terminoa darabilte. Jakingarriak ditugu puntu honetaz Leo Strauss-ek (1982, 82-83)

egiten dizkigun oharrak. Machiavelli-k, Sarrerako Atalean, hiru ohar egiten ditu liburuaren helburuaz: lehenik, Antzinateko eta Aro Modernoko pertsonaia handien ekintzak eta irakatsiak dakartza; bigarrenik, printzeen gobernuaz gogoetak egiten ditu eta erregelak ematera ausartzen da; hirugarrenik, eta azkenik, printzeen izaera ongi ezagutzera iristen da. Ezagutza historikoan oinarritzen da, azken batean. Printze berriaren diseinua pertsonaia historiko handien ereduetan oinarriturik egiten du. Printze idealaren izaera unibertsalaren edo orokorraren ezagutzari dagokiona da eta, zentzu honetan, bidezkoa da esatea testu filosofiko edo zientifiko baten aurrean aurkitzen garela. Sostengatzen duen tesiaren luze-zabala unibertsala da, arrazonamendu sistematikoa gauzatzeko unean esperientziaz baliatzen dena. Machiavelli-k arrazonamendu sistematikoaren bukaeran ondorioz ateratzen duen irakatsi edo tesia, bikoitza dugu: batetik, teorikoa (*Printzeen* izaeraren ezagutza) eta, bestetik, praktikoa (*printze* batek bete behar dituen erregelen ezagutza).

Baina, bestalde, liburuaren azken atala ikusten bada, ohartzen gara ez dela zentzu hertsian zientifikoa, zeren, lehen azpimarratu denez, ekintza iraultzailerako deia egiten bait zaio Italiako herriari.

Testu historikoa al da? Ez dirudi hala denik. Liburuaren atal guztiak batera hartuta, guztira hogeitasei dira, eta horietatik hiru bakarrik dira zuzenean atalburuan izen propioak daramatzatenak.

George Sabine-k (1945-256) askoz ere jarrera kritikoa agertzen du Machiavelli-ren lan-metodo eta emaitza zientifikoari buruz. Berak ezagutu zituen gobernariak nola jokatu zuten ikusiz eta eredu historikoak aztertuz, hots, esperientzian funtsatuz gauzatu bazituen ere bere judizioak, haren ikusmoldea ezin har daiteke zientifikotzat. Ez behintzat zentzu hertsian. Beraren enpirismoa zentzu komunean edo aurrikuspen maltzur praktikoan funtsatzen zen. Harena ez zen teoria orokorrak egiaztatzen zuzenduriko enpirismo induktibo bat. Era berean, beti ere Sabine-ren ustez, ez da zuzena Machiavelli-k metodo historikoaz gidatu zela. Honek Strauss-ek aipatzen ez zituen beste arrazoi batzuek ematen ditu. Zehazkiago esanda, bi: lehenik, Machiavelli-k dakartzen ereduak sarritan Antzinateko hartuak dira; bigarrenik, berak alde aurretik onartutako ondorioa edo tesia frogatzeko erabiltzen du historia. Zentzu batean, bada, garbiki ahistorikoa da.

Machiavelli-k, eta hau ere Sabine-ren ikuspegi kritikoa haritik doa, ez zituen landu bere teoria politikoak era sistematikoz; egoera jakin bati buruz egindako ohar-sorta da berea. Hori bai, ohar horien atzean, inplizituki bederen, bazegoen sarritan ikuspuntu koherente bat, teoria politiko bat gauzatzearaino hel zitekeena. Baina hori ondoko urteetan gertatu zen. Machiavelli-k ez zuen halako interes handirik filosofian. Nahiago zuen unibertsalaren eremuan gogoetak harrotzen ibili baino, estadistari erabilgarriak izango

zitzaizkion esakerak erabiltzea eta lantzea. Batzutan bere printzipioak azaltzera mugatu zen eta, beste batzutan, zenbait printzipio onartuzat eman zituen; praktikan, inoiz ez zuen berorien frogarik eman.

Printzea-ren egitura formala

Esanik utzi dugu Machiavelli-ren *Printzea*, Hobbes-en *Leviathan* eta Locke-ren *Treatise of Government* liburuen antzera, filosofia politiko saileko tratatu bat dela eta, gainera, testu militante bat.

Etxe baten arkitekturaren zimentuak, solairuak eta teilatua alde aurretik pentsaturik dauden bezala, *Printzean* ere egitura formal baten arabera eraturik dago diskurtsuaren eraikuntza mailakatua.

Printzeak lau zati ditu:

- a) Printzerri-mota desberdinak (1-11 atalak)
- b) Printzea eta beronen etsaiak (12-14 atalak)
- c) Printzea eta beronen menekoak eta lagunak (15-23 atalak)
- d) Zuhurtzia eta zoria (24-26 atalak)

Printzearen diskurtsu-mugimendua mendi baten igoera eta jaitsierarekin konpara daiteke. Obraren gailurra beraren erdi-partean aurkitzen da, hau da, lehen zatian. Honela, gairik garrantzitsuenak (printzerri berriak, norberaren armez eta talentuz lortuak) eta eredurik aipagarrienak (Moise, Teseo, Romulo, Zito) 6. atalean datoz. Lehen zatiko atal nagusian, zehazkiago esanda.

Jarraian, eskema honen arabera, banan-banan azalduko dira atal bakoitzean datozen tesi nagusiak.

Tesien azalpena

Liburuak Eskaintzako Sarrera bat du eta hemen, umiltasunez beteta, bere garaiko gorabehera politiko gogorretatik jasotako eskarmentu latzen bidez eta gertakari historikoen bidez bereganatutako jakituria eskaintzen dio Medici-tarren familiako Lorentzo-ri. Machiavelli berorrika zuzentzen zaio Lorentzo-ri, "Berorren Handitasuna", "Berorren Maiestatea" eta horrela deituz. Machiavelli-k Handitasunaren eta Boterearen aulkian eserita dagoen Lorentzo-ri, printze idealizatuari, bera bezalako printzeei falta zaien eta gobernatzeko beharrezko duten zerbait irakatsi nahi die. Printzeen izaera nolakoa den erakutsi nahi dio. Ibarretik mendiak eta menditik ibarrak hobeto ikusten diren bezala, politikan ere printze izan behar da, Herrien izaera ezagutzeko eta, alderantziz, herritar izan behar da printzeen izaeraz jabetzeko. Lorentzo eta Machiavelli zori-katearen bi ertzetan aurkitzen dira, baina beraien jakituria berdina da; bakoitzak jakituria politiko osoaren erdia bakarrik besarkatzen du; batak ez duena besteak du eta, honela, jakituriari dagokionez, elkarren osagarri bilakatzen dira.

Printzea liburua Lorentzo-ri eskaintzean, lehen esana dugunez, bere zerbitzuak eskaintzen dizkio. Zein zerbitzu-mota? Ez dakigu zuzen: agian, behin-behineko kontseilari-

-karguren bat, beharbada ministraritzarako desira eta gaitasuna... Dena dela, eskaintza hau dela eta, politikagintzarako gai dela erakutsi nahi dio liburu honen bidez.

Eta sarrera honekin gatozen tratatuaren mezua ezagutzera.

a)Printzerri-mota desberdinak (I-XII atalak)

Lehen atalean esaten zaigunez, bi printzerri-mota nagusi daude: **heredagarriak** (edo agintari denaren familiak aspalditik bereak dituenak) eta **berriak**. Eta berri hauen artean, halaber, bitarikoak daude: erabat berriak edo Estatuari erantsitakoak. Erabat berrien artean, Francesco Sforza-k lortutako Milano-ren kasua aipatzen du; Estatuari erantsitakoen artean, berriz, Napoli-ren kasua Espainiako erregeari atxekirik dagoena.

Bigarren atalean, printzerriak nola gobernatu arazoaz dihardu. Hemen esaten denez, printzerri heredagarrietan ez da oztopo handirik egoten luze irauteko, hain zuzen ere horietan ohiturik bait daude printzearen familia gobernatzen ikustera. Hor dago, adibidez, Ferrara-ko dukearen kasua. Lehenik, 1484ean, veneziarrek eta 1510ean Julio II.a Aita Santuak eraso zioten. Baina dukeak bere printzerria gorde egin zuen, bere familia aspaldi-aspalditik bait zen printzerriko buru.

Bi atal hauetan dakartzan adibideak bere garaiko Italiatik jasotakoak ditugu.

Baina, **3. atalean** esaten zaigunez, printzerri misto edo beste Estatu bati erantsitako berrietan zailtasun handiak egon ohi dira. Arrazoa: "Izan ere, printze berria, normalean bere menpeko berriak iraindu egin behar ditu, bai armaz eta baita beste hainbat sistema aspergarriz ere".

Atal honetan bertan, konkistari dagokionez, bereizketa garrantzitsu bat egiten du: printzerri berri hauek probintzia berdinekoak eta hizkuntza berdina dutenak edo, bestela, probintzia eta hizkuntza desberdinekoak izan daitezke.

Lehen kasuan ez dago aparteko zailtasunik, Errepublikan libre bizitzera ohituta ez badaude behintzat. Aski da lehen zuten printzea kendu eta beronen ondorengoak desegitea. Bourgogne, Britainia, Gaskonia eta Normandia Frantziara bildu zirenean, bazeuden, egon, hizkuntz diferentziak beren artean, baina ohitura berdinak zituzten; horregatik, ez zegoen etsaigo-etarako okasiorik. Esan dezagun, bidenabar, Frantzia garai hartan "langue d'oil" eta langue d' oc" hizkuntzek zatitzen zutela hizkuntzaren aldetik. Hizkuntza bakar baten batasuna 1539ra arte ez zen egin; ofizialki, Frantzisko I.ak egin zuen (1494-1547), Louis XII.aren oinordeak.

Bigarren kasuan, ordea, zailtasunak egoten dira. Arazoen konponbiderako hiru bide proposatzen ditu:

.Estatu berrira bizitzera joatea, turkiarrek Grezian egin zuten bezala.

.Estatu berrian garrantzi handia duen lekuren bat edo bestetara kolonoak bidaltzea. Kolonirik ezean, zalduneria eta infanteria ugari edukitzea bertan. Machiavelli-k "kolonia" hitza erromatar zentzuan erabiltzen du. Ez da gaur egun ulertzen den modura hartu behar, zentzu ekonomikoan, alegia; aitzitik, kolonia hemen base militarren pareko da. Euskal Herriari dagokionean, sistema honek badu aplikaziorik. Gure kasuan garbi ageri da indartsuenak nola menperatzen duen ahulena edo ahulagoa dena. Nafarroari dagokionez, hasteko, Adriano VI.a aita Santuak pribilejio bat eman zion bere diszipulu Carlos I.ari 1523an, bula bat, zeinaren bidez erregeak patronato-eskubideaz eta, orobat, Iruñeko gotzain-aulkirako berari ondoen zetozkionak hautatzeko eskubideaz baliatzeko ahalbideak ematen bait zizkion. Honela, pribilejio horren bidez, Aita Santuak bide irekita utzi zuen Erresuma Zaharra konkista zezaten eta, bide batez, enperadoreak izenda zitzan bere apezpikuak. Segidan, menerapen hori euskal foruen kontrako borrokan gauzatzen da, XIX. mendean, orduan finkatu bait ziren Espainiako indar armatuak euskal lurraldean:

Karabinarien gorputza 1841ean mugetan eta Guardia Zibila 1844ean. Kolonizazio armatuaren ondoan, zeharka, kolonizazio kulturala dago. Frankismoak Euskal Herrian 600.000 inguruko inmigrazioa sorterazi zuen. Fenomeno honek zerikusirik izan du, noski euskararen ordezkapen-prozesuan.

.Inguruko printzeen nagusi eta babesle gisa agertzea eta, halaber, haien arteko printzerik indartsuenak ahultzeko bideak asmatzea.

Erromatarrek bete zituzten baldintza horiek konkistatu zituzten probintzietan. Adibidez, Grezia konkistatu zutenean. Koloniak bidali zituzten hara eta beraiek bezain indartsu ez ziren inguruko printzeak sendotu gabe mantendu zituzten. Erromatarren ustea zen gaitzari aurrea hatu behar zitzaioela eta horrela bakarrik konpon zitezkeela arazoak.

Frantziako Luis XII.ak, aldiz, arras bestela jokatu zuen. Ohituraz nahiz hizkuntzaz desberdina zen Italian ez zituen bete aipaturiko baldintza haiek. Zer ez zuen egin Luis XII.ak, besteak beste, Napoleon-ek bere oharrean esaten digu: frantsesaren erabilera ezarri konkistatutako herrialdeetan. Napoleon-ek, hitzez hitz dioenez, "herri bateko ohiturak atzerriko beste herri batean sartu ahal izateko, ez dago beraren hizkuntza herri hartan ezartzea baino bide eraginkorragorik". Bigarren oker politikoa zen Luis XII.ak Alexandro VI.ari, Aita Santuari, Romagna-z jabetzen lagundu ziola eta, erabaki hori zela bide, batetik Luis XII.aren beraren boterea ahuldu egin zen (bere lagunak eta menpera etorri zitzaizkionak urrutiratu egin zitzaizkiolako) eta, bestetik, Erroma boteretsuago bilakatu zen (lehendik zeukan agintaritza izpiritualari hain lurralde zabalak gehituz gero guztiz indartsu bihurtu zelako). Bestalde, Napoli-ko erresuma eskuratu nahi izan zuen eta horretarako Espainiako

erregearekin batera egin zen haren jabe. Eta horrela, Italiako nagusi izanik, beste adiskide bat sartu zuen berarekin; honen ondorioz, noski, pozik ez zeuden italiarrak adiskide berriarengana joango ziren laguntza eske. Machiavelli-k, bada, sei hutsegite egotzen dizkio Luis XII.ari: Italiako potentzia txikiak desegitea beste printze boteretsu baten (Aita Santuaren) mesedetan, atzeritar indartsua (Espainia) bertan sartzea (bera han bizi gabe eta koloniarik ezarri gabe) eta veneziarren lurraldeak murriztera joatea.

Gogoeta historiko hauek egitean, Machiavelli-k erizpide hau du gogoan: lurraldeak eskuratzeko gogoia izatea gauza arrunt eta guztiz normala dela eta, zentzu honetan, politikari konkistatzaileak goratuak izango direla eta ez irainduak. Baina konkista hori behar bezala egiten ez bada, huts egiten dute eta, huts hori dela eta, izango dira irainduak. Helburua (konkista bera) zerbait goresgarri da; bideak edo bitartekoak akats tekniko baten ondorio diren neurrian bakarrik dira kondenagarri.

"Alexandro-k Dario-ren erresuma okupatu eta Alexandro hil zenean bere ondorengoen aurka zergatik ez ziren altxatu" darama izenburutzat 4. atalak. atal hau da "printzerri mistoez" diharduten hiru atalen erdigunea. Machiavelli-k, 3. atalean, Italiatz jabetzeko orduan Luis XII.ak egin zituen hutsegiteez hitzegiten du. Badirudi, itxura batean, Machiavelli-k Luis XII.ari aholkuak eman nahi dizkiola nola konkistatu behar den erakutsiz. Baina aholku horiek izan

bide zitezkeen, eta daitezke, baliagarriak era berean Italiaren askapenerako.

Baina Italiaren egoera politikoa askapenaren aldetik begiratuta, galdera bat geratzen da zintzilik: Italiaren askatzaileak Italiako estatu txikiak desegin eta garrantzitsuenak sendotu behar al ditu? Cesar Borgia-ren bidea, hain zuzen, hortik zihoan. Baina estatu indartsuenak sendotzeak ez ote zuen ekarriko Italia inbaditua zeukanaren indartzea? Hauxe da 4. atalean, zeharka bederen, planteatzen den arazoa. Machiavelli-k bi printzerri-era bereizten ditu: era batean, Turkia Alexandro-ren konkistapean egon zen garaian bezala, bat da printzea eta beste guztiak esklaboak dira; bigarren eran, Frantzia bezala, printzeak eta baroiek gobernatzen dute, eta horietako bakoitzak bere menpekoak eta hauek autonomia osoarekin gobernatzen ditu. Hemen interesatzen dena da bereiztea, batetik, agintaritza osoa daukan botere zentralak gobernaturiko herrialdeak (adibidez Turkiaren kasua) eta, bestetik, botere erregional edo lokal askoz osaturiko eta horietako bakoitzak autonomia osoz gobernaturiko herrialdeak (adibidez Frantzia). Bereizketa honen argitan, Frantziaren kategoria berean aurkitzen da Italia ere. Zentzu honetan, Italiarekin 3. atalean hasitako eztabaida hemen 4. atalean Frantziarekin segitzen du. Arazoaren irtenbidea edo erantzuna ere ematen da 4. atal honetan. Honela arrazonatzen du: Turkiako erresuma konkistatzea oso zaila da; baina inork konkistatuko balu, oso erraz gertatuko litzaioke menpean edukitzea. Baina erabat

bestela gertatzen da Frantziarekin (edo arazoa orokortuz Italiarekin) zeren erraz sar bait daiteke kanpokoren bat bertako baroiren bat erosita, beste erregio boteredunen kontra borrokatzeko prest egongo litzatekeena; baina botereari eustea oso zail gertatuko zaio, zeren lehengo botere erregional edo lokalak prest egongo bait dira printze berriari erasotzeko.

Eta konkistatutako herriak nola gobernatu behar dira? Hau da 5. atalak aztertzen duena. Hauxe da konkistaz diharduen azken atala.

Bere lege propioz gobernatu eta errepublikan bizi ziren Estatuak manupean gorde ahal izateko, hiru hauetako erabakiren bat hartu behar da: Estatu hondatzea, haiekin batera bizitzera joatea edo, azkenik, beren legetan uztea herri horiek, urteko zerga bat ordaintzera behartuz eta printze berriarenganako leialtasuna gordeko duen pertsona gutxiko auzitegia ezarritz.

Espartarrek eta erromatarrek adibide onak eskaini dizkigute. Erromatarrek Kaputa, Kartago eta Numantzia beren boterepean gordetzearren, desantolatu egin zituzten eta ez zituzten galdu. Bestalde, espartarrek Atenas eta Tebas pertsona gutxiko Kontseiluaren bitartez gobernatu zituzten; hala ere, azkenean galdu egin zituzten. Efikaza izateko zer egin behar da, beraz? Konkistatutako herriaren erregimena desegin. Arrazoa: "Libre bizitzera ohituta dagoen hiri batez nagusitzen denak bertako erregimena desegiten ez baldin badu, erregimenak bera

hondatuko duela pentsatu behar du. Horrelako hiri batek bere erreboltaren aitzaiki, askatasuna eta antzinako legeak izango ditu". Horregatik, hiritarrak desantolatu eta sakabanatzen ez baldin badira, ez dituzte sekula askatasuna eta beren estatutu bereziak ahaztuko. Berriz ere lehengoa eskatuko dute. Adibidez, pisatarrak fizenzetarren menpean mende oso batez egon arren, haiek beren askatasunaren bila abiatu ziren.

Orain arte konkistatutako herriak nola gobernatzen diren esan da. Baina VI-IX ataletan printzerri berriak nola lortzen diren esaten digu Machiavelli-k.

Boterea, eskema bidez emanda, honela lor daiteke:

- a) Norbere armaz eta ausardiaz (VI. atala)
- b) Zoriari esker (VII. atala)
- c) Gaiztakerien bidea (VIII. atala)
- d) Bere herrikide edo handikien laguntzaz (IX. atala)

Goazen atalez-atal areago zehaztuz.

VI. atala da lehen zatiaren ardatza. Hemen aipatzen dira beren ausardiari esker printze izatera iritsi zirenak: Moise, Ziro, Teseo eta Romulo. Hauen jokabidea eta ekintzak aztertzean, ohartzen gara zoriak okasio on bat eskaini ziela beren Estatu berriak nahi erara antolatzeko; okasio hori gabe, alferrikakoa gertatuko zitzaien ausardia. Eta alderantziz: ausardirik gabe, alferrikakoa izango zuten okasio ona.

Gisa honetara printze izatera iristen direnek ez dute printzerria lanik gabe eskuratzen, baina gero erraz gordetzen dute.

Arazo honetaz, Machiavelli-k beste bereizketa garrantzitsu bat ezartzen du, bereziki argigarria dena askapen nazionalaren arazoa planteaturik daukaten herrientzat. Honela formulatzen du: "...ea eraberritzaile haiek berez duten nahikoa indar ala beste batzuren menpean ote dauden aztertu behar da; beren ekintzak aurrera ateratzeko besteei laguntza eskatzeko premia duten ala berez nahikoa indar duten, alegia. Lehen kasuan, behin ere ez dute asmatzen, eta gauza onik ez da sekula ateratzen. Baina inoren menpe ez dagoena, eta bere indarrez gauzak aurrera bultzatzen dituen, nekez geldituko da nahi zuena iritsi gabe. Hori dela eta, profeta armatu guztiek asmatu zuten eta armarik gabe zeudenek huts egin zuten".

Ohar pare bat: hemen, aliantzen arazoa dago eta, bigarrenik, indar armatuena. Bestela esanda: indar edo botere zentralisten edo estatuen eta erakunde nazionalisten arteko aliantza, batetik; herri zapalduen edo botere zentral horrek menpean dauzkan herrien indar armatuena, bestetik. Machiavelli-k planteatzen duen kasuistika honek badu bere islada Euskal Herriko egoera politikoarekin. Erantzuna garbia da: beste batengana (atzeritar batengana) arrimatzen denak eta desarmaturik dagoenak huts egin du. Moise, Ziro, Teseo eta Romulo bezalako profeta armatuek asmatu zuten, eta ez Fiolamo Savonarola

fraile desarmatuak. Antzinateko lau izen horiek dira Machiavelli-k eredu gisa dauzkanak, profeta deitzen dituenak, Estatu erabat berriak eraiki dituzten printze berriak, beren arrakasta bertuteari zor diotenak. Bertutea (**virtù**) Machiavelli-rentzat gizakiaren barne-indar aktiboa da, zoriaren (**fortuna**) gainetik dagoena.

Hurrengo atalean, VII. atalean zehazki, hiritar soil izatetik printze izatera zoriari esker iritsi zirenak dauzkagu. Hauek neke handirik gabe lortzen dute printzegoa, baina lan handiak izaten dituzte gero berari eusteko. Hauek diru-bidez edo mesede-truke eskuratu zituzten printzerri horiek eta bi faktore horien oinarriak, bistakoa denez, guztiz aldakorak dira. Hemen Machiavelli-k bere garaiko bi izen aipatzen dizkigu: Francesco Sforza eta Cesare Borgia. Lehenak neke handien ondoren lortu zuen Milano-ko dukerria eta erraz gorde zuen; Cesare Borgia-k, aldiz, bere aitaren ondasunei esker eskuratu zituen bere Estatuak eta, bere printzerriari eustearren sistema askoz baliatu bazen ere, azkenean galdu egin zituen aita hildakoan.

Bi izen badakartza ere, pertsonaia nagusia Cesare Borgia da. Printze berriarentzat eredu gisa aurkezten du Machiavelli-k: "Valentinois-eko dukearen aurrerapenak aztertzen baldin baditugu, bere geroko dominaziorako oinarri sendoak prestatu zituela ikusiko dugu eta hemen aditzera ematea ez da alfer-lana izango. Izan ere "Printze berri" bati ezin dizkiot duke honen ekintzak baino ikaskizun baliagarriagorik eskaini.

Bere erakundeak alferrikakoak izan baldin baziren ere, ez zen haren erruz izan, zoil guztiz txarra izateagatik aizik".

Lehenik, Rogmana eskuratu zuen Aita Santuak Luis XII.ari eskatutako tropen bidez. Gero Erromako orsinien eta colonnesien taldeak azpiratu eta desegin zituen. Borgia-k ordura arte lortutako botereari eusteko lau bideok asmatu zituen: lehendabizikoa, berak agintaritzat kendutako jaunak desegitea, Aita Santu Julio II.ak laguntzarik eman ez ziezaien; bigarrena, Erromako aitonen seme guztiak bereganatzea; hirugarrena, kardinalen Kolegio sakratuarekin ahal zuen neurrian adiskidetzea eta azkenik, laugarrena, Alexandro bere aita hil baino lehen dominazio handi baten jabe izatea. Lehendabiziko hiru bideak burutuak zituen eta laugarrena bidean zegoen. Heriotza goiztiarrak ebaki zion bidea.

Honela deskribatzen du Borgiaren ereduako politikagintza:

"Bere printzerri berrian etsaien-gandik gorde, lagun berriak egin, indarraren ala maltzurkeriaren bidez irabazi, herriak maitatu eta beldur izan, soldaduei obeditu eta errespetatu erazi, estatutu zaharren ordeztatu berriak ezarri, kalte egin diezaioketen gizonen-gandik libratu, zorrotza eta atsegina izan, bihotz oneko eta eskuzabal agertu, leial ez diren tropak desegin eta berriak osatu, beste errege eta printzeen adiskidetasuna haiek begi onez zerbitzatzen dutelarik gorde, bere printzerri berrian, berriz diot, guzti honen premia duenak, duke honek

ekintzak baino eredu hoberik eta gordinagorik ez du aurkituko".

Printzegora gaiztakeriaren bidez heltzen direnen adibideak dakarzkigu VIII. atalean. Hemen sartzen ditu hiritar soil izatetik sistema gaizto eta gorrotagarrien bitartez printzegora iristen direnak. Honen frogan, historiako bi adibide dakartza: bata zaharra, Siziliako Agatokle-rena, eta berria bestea, Oliverotto Fermokoarena, Alixandro VI.aren garaikoa. Hauek odola, traizioa eta gaiztakeria erabili zituzten bidetzat. Machiavelli-rentzat, bortxaz ongi ala gaizki baliatzean datza arazo politikoa. Berak honela planteatzen du:

"Gogorkeria ongi erabiltzea, –baldin eta gaiztakeriaz ondo hitz egiterik badago– behin bakarrik norberaren segurtasuna eskuratzeko erabiltzea da, gero gogorkerian jarraitu gabe. Aldi berean, gogorkeria gobernatuei onik handiena egingo dien eran erabili behar da. Gaizki erabilitako gogorkeria, hauxe da: hasieran ekintza gutxi izanik, gero eta gehiagotan erabiltzea, egunetik egunera gogorkeria handiagoz baliatzea, berez gero eta gutxiago eta azkenean gogorkeriarik bat ere erabili behar ez denean". Eztabaidarako hainbeste zio ematen duen gai hau XVII. atalean lantzen den beste honi lotzen zaio zuzen-zuzenean: gogortasun eta bihozperatasun-arazoan alegia. Hemen, gogorkeriaren erabilera egoki eta zuzena onetsiz, Cesare Borgia-ren jokabidea justifikatzen du, zeren bere bihozgogorkeriari esker sendatu bait zituen Rogmana-ren

gaitzak, zatiketak gainditu, bakea lortu eta jendea leial bihurtu. Horregatik, bihozgogorkeria menpekoak batuta edukitzeko eta agintariari zor dioten leialtasuna atxekitzeko erabiltzen bada, ongi erabilia dago. Helburu jakin batzu lortzeko eraginkorrak baldin badira bideak, onargarriak dira. Helburuekiko bitartekoen arazoa, azken batean, arazo teknikoa da, ez arazo moralala. Hemendik doa Machiavelli-ren ikuspegia.

Hirikideen bidez eta laguntzaz printze izatera heltzea da azken modua eta hauxe lantzen du IX. atalean. Printzeri-mota honi deitzen dio printzego zibila. Printzegoa handikien laguntzaz lortu duenak, herriaren laguntzaz lortutakoa baino zailtasun handiagoz eusten dio botereari, inguruan bera bezain agintari dela uste duen jende asko bait du eta ezin bait ditu bere gogora maneiatu. Baina herriak bultzatuta printzegora iristen dena bakarrik aurkitzen da bere agintaritzan, eta inguruan dituenen artean, inor edo ia inor ez da egoten obeditu nahi ez dionik.

Garai hartan hain indartsuak ziren eliz printzerriei buruz XI. atalean hitz egiten du. Printzerri-mota honek ez du zailtasunik aurkezten, eskuratzekoan izan ezik. Arrazoa: eliz printze hauek bakarrik dituztelako defendatu beharrik gabeko Estatuak eta gobernatu beharrik gabeko menpekoak. Defentsarik gabe egonagatik, Estatu hauek ez dizkio inork kenduko eta menpekoak, nahiz eta gobernaturik gabe egon, ez dira horregatik kezkatuko.

*b)Printzea eta beronen etsaiak
(XII-XIV. atalak)*

Armadaz eta gerraz da hemen arazoa. Arestian eliz printzerriek ez dutela arma beharrik esan da. Orain berriz esango zaigu arma onak edukitzea nahitaezko baldintza dela lege onak edukitzeko: "Edozein Estaturen (berria, zaharra nahiz mistoa izan) oinarri nagusiak, lege onak eta armak dira..."

Zati honetan adibide modernoak baino gehiago eta usuago aipatzen ditu Antzinetatik jasotakoak.

Hiru tropa-mota bereizten ditu printze batek bere Estatua defendatzeko daukan armadaren baitan. Hauek dira: tropa mertzenariak, laguntzaileak eta bereak.

.Tropa mertzenariak (XII. atala) alferrikakoak eta arriskutsuak dira. Tropa mertzenariez osaturiko armadak batasunik gabeak dira, anbiziodunak, zintzotasun eta leialtasunik gabeak, lagunen aurrean harroak eta etsaien aurrean beldurriak bait dira. Arrazoa ere ematen du: beren soldatatzat aparte beste maitasun eta eraginik ez dute, eta soldatatzat dela eta, ez daude zuregatik bizia emateko prest. Horregatik hartu zuen hain erraz Frantziako errege Karlos VIII.ak Italia, hark bere armada nazionala bait zuen eta honek, ez. Espartak eta Erromak denbora luzez eutsi zioten beren askatasunari, hain zuzen armada nazionalaz horniturik zeudelako.

. Tropa laguntzaileak (XIII. atala) dira printzeren batek laguntzarren eta

defendatzearren eskaintzen dituenak. Armada hauek, mesedegarriak eta berez onak izan daitezke, baina zorigaiztokoak dira beti eske dabilenarentzat. Bere garaiko adibide bat ere aurrean dauka Machiavelli-k: Aita Santu Julio II.ak tropa mertzenariekin eraso zion Ferrara-ri. Espainiako Fernando erregearekin tratu bat egin zuen eta honek tropak bidali zizkion. Cesare Borgia, hasieran, tropa mertzenariez baliatu zen: Frantziako tropekin hartu zituen Imola eta Furli; gero Orsini eta Vitelliren tropez baliatu zen. Gero ordea, mertzenariak susmagarriak zirela ohartu zenean, tropa mertzenariak baztertu eta bere armadaren bidez egin zuen gerra.

. Tropa bereak (XIII. atala) dira herrikideez osaturiko tropak. Machiavelli-k ateratzen duen ondorioa da, alde batera utzita tropa mertzenariak eta laguntzaileak, tropa nazionaletan bakarrik dagoela ziurtasuna. Honela bukatzen du XIII. atala:

"Bukatzeko, hauxe esango dut: bereak ez dituen armak baldin baditu, printzerria ez da inoiz segurtasunez biziko. Gehiago oraindik: zoriaren menpe bizi da printzerri hori, estutasunak jotakoan defendatzeko ausardiarik ez duelako".

Euskal Herrian bada aipaturiko tropa hauen aplikazioa egiterik. Espoz y Mina nafarrak Independentziako gerran frantsesen kontra borrokatu zenean, bazuen arrakastarik herritarren artean: gero, liberalen bandora pasa eta Zumalakarregiren kontra hasi zenean,

herritarrek muzin egin zioten eta bere herrian saripeko tropa mertzenariekin ihardun behar izan zuen.

Dena dela, esan beharra dago Machiavelli-k errotik sinesten zuela herrikideen armadan. Konbentziturik zegoen Italiaren askapen nazionala eta batasuna lortzeko eta, bidenabar, barne-anabasa gainditu eta atzerritar inbaditzaileen hatzaparretatik libratzeko, ezinbestekoa zela armada nazionala eraikitzea. Izaera nazionala nahiz sozialeko iraultzak, azken finean, borroka armatuan oinarritu dira. Euskal Herriko borroka armatua, lehengoa eta oraingoa, adibide bat gehiago besterik ez da. Guzti hauen atzean Machiavelli-ren pentsamendua dago.

Zer egin behar du, beraz, printzeak politikan zuzen jokatzeko? Erantzuna XIV. atalean dator: gerrari buruzko artea ikasi. Horixe, Printze batek, gerrarako artea eta armadaren ordena eta disziplinaz aparte, ez du beste inongu helbururik. Printzea bi eratara ardura daiteke gerrarako artez: ekintza-bidez eta pentsamendu-bidez. Lehen bideari dagokionez, sarritan joan behar du ehizara, gorpuzta zailtzeko eta orografia ongi ezagutzeko. Bigarren bideari dagokionez, historiak irakurri behar ditu, gizon ospetsuei buruzkoak bereziki, hauek nola jokatu zuten ikusteko.

c) Printzea eta beronen menekoak eta lagunak (XV-XXIII. atalak)

Hirugarren zati honetan Machiavelli-k Tradizio Handiari erasotzen dio. Bitxia da lehen irakurketa batean,

baina XV. atalean ez dator adibide historikorik. Printzeak nolako bertuteak eduki behar dituen azaltzera doan atal honetan, ez ditu aipatzen ez Testamentu Zaharra, ez Jenofonte, Ez Testamentu Berria, ez Platon, ez Aristotele. Orain Machiavelli bere kabuz ariko da. Irakatsi tradizionalari ezezko biribila eman ondoren, berak beste berri bat proposatuko du, eskandalagarria beharbada, baina beharrezkoa eta arrazoitua. Argumentuak XV. ataletik XX. atalera arte aurki daitezke.

Hirugarren zati honek mezuaren aldetik, lau azpizati bezala ditu: lehenik, printzearen bertuteak zeintzuk izan behar duten esango digu; bigarrenik, mesprezaturia izan ez dadin, zer ez duen egin behar; hirugarrenik, zuzen jokatzeko nolako zuhurtzi neurriak hartu behar dituen; azkenik, estimaturia izateko zer egin behar duen.

Puntu hauek banan-banan azalduko ditugu.

. Printzearen bertuteak. Gizakiaren bertuteaz eta bizioaz XV. atalean dihardu. Bere menpekoekin eta lagunekin nola jokatu, hori da arazoa. Ohar batekin hasten da: utopia alde batera utzi behar da eta gauzak diren bezala ikusi behar dira eta ez nahiko liratekeen bezala. Hala dio: "Pertsona askok, inoiz izan ez diren eta izango ez diren errepublika eta printzerri-motak amestu bait ditu. Oso desberdina da gizonak nola bizi diren jakitea eta nola bizi beharko luketen jakitea". Hemen, noski, kritika bat egiten zaio pentsamolde tradizionalari.

Beraz, politikariaren erizpidea beste honako hau izango da: "Beharrezkoa, eta gero, giroaren arabera horretaz baliatzen ala ez baliatzen jakitea".

XXIII. atalean areago esaten du, alegia "gizakia beti gaiztoa dela, baldin eta ona izatera behartzen ez bada".

Eta XVII. atalean ere aurreko aitorten hori sendotzera dator testu hau: "gizonak normalean, esker txarreko, aldakor, maltzur, arriskuen etsai eta etekinzale direla esan daiteke".

Machiavelli-k, testu hauetan ageri denez, politikagintzan praktikotasunari begiratzen dio. Baina zentzu praktiko honen azpian, aldi berean, badago halako auresuposizio filosofiko bat ere. Hauxe da: giza izaera funtsean egoista dela, sakon-sakonean erasokorra eta anbiziosoa dela; gizakiek lehendik daukatenari eutsi eta gehiago lortzea dute beti amets. Horregatik, politikariak ona ez izaten ikasi behar du zerbait egingo badu.

Eta printzeak ondo gobernatzeko zeintzu bertute eduki behar ditu? Hauexek aipatzen ditu ondoko ataletan:

. *Eskuzabaltasuna eta zekenkeria* (XVI. atala). Biak batera, edota, hobeto esanda, biak nahasian. Bertutea eta bizioa elkarren ondoan, komenientzien arabera erabiliz. Gure garai hauetan, hala dio, zeken-hotsekoak ikusi ditugu ekintza handiak burutzen eta eskuzabalak menpera erortzen. Adibide historikoak hor daude: Aita Santu Julio II.a,

Espainiako Fernando erregea, Zesar, etab. Bidean bazaude, eskuzabal izatea on da; baina lortu baduzu, eskuzabaltasuna kaltegarri zaizu.

. *Gogortasuna eta bihozperatasuna* (XVII. atala). Norbera maitatua izan ala norberaren beldur izan, zer da hobe? Hau da arazoa. Eta hemen zehazki Borgia-ren adibidea dakar Machiavelli-k. Cesare Borgia-k bihozgogorraren fama zuen, baina bere bihozgogortasunari esker sendatu zituen Rogmana-ren gaitzak, zatiketak gaudituz, bakea lortuz, etab.ez Printzeak biak behar ditu batera: maitatua izatea eta haren beldur izan daitezen ere bai. Baina biak batera izatea zaila denez gero, bietatik bat aukeratzekotan, zuhurrago dela esango digu beldur izan daitezen. Anibal-en jokabidea ere argigarri da hemen: jatorri guztiz desberdinetako jendez osatutako armada zeukan eta lurralde arrotzetara joaten zen; hala ere, ez zen egon buruzagiaren kontrako altxamendurik. Eta hori, noski, bere gupidagabeko bihozgogortasunari zor zaio.

. *Printzeek zintzotasunez jokatu behar dute* (XVIII. atala). Lehen esan den bezala, bi bide daude defendatzeko: legezkoa bata, eta indarrezkoa bestea. Lehendabizikoa da gizonentzat egokiena; bigarrena, batipat animaliei dagokie. Baina askotan lehen bidearekin nahikoa ez denez gero, bigarrenaren premia izaten da. Horregatik, printzeak beharrezko du bi bideak batera egoki erabiltzen jakitea. Printzeak, beraz, erdi animalia eta erdi gizaki izan behar du. Edo bestela esanda: azeriarena eta

lehoiarena egin behar du, aldi berean. Esandakoak gogoan hartuta, bada, printze zuhurak bere kalte-rako du emandako hitzari eustea. Gizakiak izatez txarrak direnez gero, ez dago beste biderik. Zakurkeria eta kito!

Printzeak batez ere egin behar duena da itxurak egitea. Hau guztiz inportantea da. Printzeak jarraiko bots bertute hauen itxurak egin behar ditu: gizatasun, zintzotasun, zuzentasun, ontasun eta erlijiotasunez betetako pertsonaren itxurak, alegia. Batez ere erlijio-itxurak. Aita Santu Alexandro VI.ak beste guztiak engainatu besterik ez zuen egin. Fernando katolikoaz honela mintzo da beraren izena aipatu gabe: "Gaur egun bakea eta zintzotasuna hitzetik hortzera darabilen printzea badago: Baina bera bakezale eta zintzo izan balitz, askotan galduko zituzkeen bere agintaritza eta famak. Hala ere, printzea izendatzea ez dut uste komeni denik".

Eta halaxe da, izan. Lehen esan bezala, Fernando katolikoa erlijioaren armaz baliatu zen Nafarroa konkistatzeko 1512an. Nafarroako erregeak kondenatuz, Aita Santuaren bula apokrifiko bat idazteko agindua eman zuen eta, bula horren babespean, bortxaz bereganatu zuen Nafarroako erresuma zaharra. (Ik. Manu de Lipuzkoa: *La Iglesia como problema en el País Vasco*, 28 or.). Frankismoaren eredia ere oso hurbila dugu: 1936ko gurutzada-gerratea, 1953ko konkordatuak, nazional-katolizismoan oinarritutako sistema politikoa, etab.

. Zer ez duen egin behar, gaitzetsia eta gorrotatua izan ez dadin (XIX. atala). Bi gauza hauek ez ditu egin behar: lapurra izan eta menpekoen ondasun eta emazteak indarrez kendu. Arrazoia: "Gizonen gehiengoari beren ondasun eta ohorea kentzen ez zaion bitartean, pozik baleude bezala bizi ohi dira, eta orduan, gutxi batzuren handikeria besterik ez da zaindu behar".

Bestalde, printzeak bi gauza hauei izango die beldur: batetik, bere Estatu barruan dauden menpekoen altxamenduari eta, bestetik, atzerriko auzoko potentzien erasoari. Bigarren arrisku honetatik gordetzeko, arma eta hitzarmen onak ditu premiazko. Baina arma onak baditu, beti lortuko ditu hitzarmen onak.

Hala ere, nahiz eta atzerri aldetik arriskurik ez egon, gerta liteke menpekoen artean azpijoko ezkuturen bat egotea. Baina printzea gaitzetsia eta gorrotatua ez baldin bada, herria beraren gobernatzeko moduarekin pozik baldin badago, azpijokoak porrot egingo du.

Mezuaren aldetik, atal honetan, puntu hau da funtsezkoena: alegia, gobernari zuhurak ez duela sartu behar bere menpekoen jabetzarekin eta emakumeekin, azken bi arazo hauek bait dira erresistentzia handienak sorteratzen dituztenak.

Bestalde, egitura formalaren aldetik, XIX. atal hau da hirugarren zatiaren erdigunea, VI. atala lehen zatiarena den bezalaxe. VI. atalean printzerri berriaren eraikuntzari

buruzko eztabaidari hasiera ematen zaio eta XIX. atalean, berriz, eztabaida horren jarraipena dator. Horregatik hain zuzen ere, XIX. atala lan osoaren gailur gisa har dezakegu eta, beraz, hirugarren zatiaren zatirik garrantzitsuena bezala ere bai. Atal honetan esaten da, azken partean zehazki, historiako fundatzaile edo aktore handiei buruz esan behar den oinarrizkoena. Bereziki Erromako enperadoreak aipatzen dira: Marko Aurelio, bere seme Commodus, Pertinax, Juliano, Septimius Severus, Karakalla bere semea, Makrino, Heliogabalo, Alexandro Severus eta Maximino. Printze hauen dohainen ondoan, Commodus, Septimius Severus, Karakalla eta Maximino-ren izakera eta jokabidea hartuko baldin bagenitu, guztiz gogor eta ankertzat joko genituzke. Beren soldaduak pozik edukitzearren, herriari hamaika irain egin zizkieten. Baina Severus-ek ezik, beste guztiek bukaera txarra izan zuten. Severus-ek, bere neurriz gaineko ausardiari esker, herria zanpatu arren soldaduak berganatuta lasai agindu zuen. Severus-en ekintzak aztertzen dituen nornahik, dio Machiavelli-k, lehoi guztiz ankerra eta azeri oso azkarra eta maltzurra izan zela aldi berean, ulertuko du. Guztiek zioten beldurra eta errespetoa. Bera dugu, beraz, eredu.

. *Zuhurtzi-neurriak* (gotorlekuak eta beste zenbait gauza) direla eta, Machiavelli-k printze batzuk nolako neurriak hartu zituzten esanez hasten du XX. atala. Honela, batzuk menpekoak desarmatzea egokia zela pentsatu zuten; beste batzu, berriz, menpeko herrien artean zatiketak

sortzen saiatu ziren; zenbaitek, bertako pertsona batzu etsai mantendu zituen eta beste zenbait, berriz, erregetzaren hasieran susmagarri ziren gizonak bereganatzen ahalegindu zen; azkenik, batzuk gotorlekuak eraiki zituzten beren lurraldeetan eta beste batzuk, berriz, lehen zeudenak birrindu egin zituzten. Neurri-mota ugari, beraz.

Menpekoak armatu ala ez armatu arazoari dagokionez, Machiavelli-k pentsatzen du printzeak lehen berea izandako Estatu berria berreskuratzen duenean, berreskuratzerakoan erabat beraren alde jokatu dutenak bakarrik armatu behar dituela; menpekoen arteko zatiketak bake-denboran bakarrik dira probetxugarriak, baina ez gerra garaian; ondo dago printze jakintsuak, ahal duenean, etsairen bat sortzea, berori menperatuz gero, ohorea lor dezan; gotorlekuak, segun zein garaitan eta zein egoeratan, baliagarriak ala alferrikakoak izan daitezke, baina, nolana ere, defentsarik handiena herriak ez gorrotatzea da.

. *Estimatuia izateko* printzeak zer egin behar duen esatera dator XXI. atala. Erantzuna atalaren hasieran bertan ematen digu: aski da lan handiak nahiz ekintza arraro eta miragarriak egitea. Honetan eredugarri Espainiako errege Fernando V.a dugu. Ahul izatetik, bere fama eta ohoreagatik kristau herriko erregetan nagusiena izatera heldu zen. Hau, ekintza handiagoak burutzeko erlijioaren aitzakia erabiliz, debozior jantzitako gogorkeriaz baliatu zen mairuak erresumatik botatzeko. Lehen esan dugu zer egin zuen Nafarroako erresumarekin.

Neutraltasunaren arazoa ere ukitzen du. Hona hemen zer pentsatzen duen: "Neutraltasuna eskatzen dizuna, sekula ez dela zure lagun gogoan izan behar duzu. Haren aldeko agertu eta armak harturik batera gerra egitea eskatzen dizuna berriz, zure lagun da. Aldian aldiko arriskuak baztertu nahi dituzte printze zalantzakorrek, neutraltasunaren bideari heltzen diote gehienetan. Baina ia beti hondamena datorkie hortik. Gerra ari den parte baten aldeko garbi ateratzen den printzea, irabazlearen lagun gerta daiteke". Dena dela, printze batek besteei eraso nahi badie eta horretarako beste batzurekin elkartu behar badu, sekula ez du bera baino printze indartsuago batekin elkartu behar, irabaztekotan ere, bera baino indartsuago baten azpian geratuko bait litzateke.

d) Zuhurtzia eta zoria (XXIV-XXVI. atalak)

Azken zati honi ohar orokor batzu egin ezazu hasiko gara. Argumentazioaren mugimendua, hirugarren zatian lehenengoaren antzekoa zen bezala, laugarren zatiarena ere bigarrenaren antzekoa da. Paralelismo hau dago, beraz, argumentazioaren mugimenduaren aldetik: 1=3 eta 4=2.

Bestalde, hirugarren zatiko azken ataletan ez bezala, laugarren honek ezaugarri hauek ditu: Machiavelli berriz ere "printze berri"etara itzultzen da eta Antzinateko ereduetan oinarritzen da. Hala ere, erdiko atala (XXV. atala) eredu modernoez ari da. Azken atalean berriz ere

VI. atalean aipaturiko lau fundatzaile handietatik hiru aipatzen ditu: Moises, Ziro eta Teseo.

Italiaren askapen nazionalerako deia egiten du azken atalean. Askatzaile hori italiarra izango da edo, bederen, horrengan dauka jarria esperantza. Honek, bere helburua lortuko badu, Antzinateko garai handietan besteek fundatzaile handiek egin zutena imitatu beste biderik ez du. Honela agurtzen du Italiaren salbatzaile hori XXVI. atalean:

"Italia beraz, zauriak sendatu, Lombardia-ko harrapaketa eta birrinketak geldierazi, Napoli-ko lapurreta eta hilketei amaiera emango dien salbatzailearen zain dago; aspaldian dituen zauriak sendatuko dizkionaren zain alegia. Barbaroek egindako ankerkeria eta irainetatik aterako duena bidal dezan Jaunari erreguka ikusten dugu Italia".

Ondoko pasarte batean, badirudi biolentzia edo bortxa justifikatzen duela, dioenean:

"Hemen bestetik, justiziazko arazo nagusia dago. Izan ere gerra, beharrezko izateagatik bakarrik, bidezkoa da, eta itxaropena horretan bakarrik dagoenean, gizatasun-ekintza ere bada".

Helburuen erdiesteko bitarteko guztiak erre direnean eta esperantza bortxan bakarrik ikusten denean, ez da bakarrik bidezkoa, baita gizatarra ere.

Lehen erlijioa (XXI. atala) eta orain bortxa aipatu ditu Machiavelli-k

bide egoki gisa zenbait helburu politiko lortzeko. Eta egia da. Machiavelli indiferentea da moralari buruz. Berarentzat politika helburua da bere baitan. Eta hauxe da, funtsean, Machiavelli-ren pentsamenduaren ezaugarririk behinena. Gobernu-mekanikaz dihardu, boterea sendotzeko bitartekoez, eta abarrez. Neurri politikoak eta militarrik dira berari interesatzen zaizkion ia gauza bakarrak eta, zentzu honetan, bazter uzten ditu gogoeta erlijioso, etiko eta moralak. Hauek politikan zerikusia duten neurrian bakarrik interesatzen zaizkio, botere politikoari eusteko edo berori lortzeko haiek izan lezaketen arrakasta bakarrik du gogoan. Ezer ez gehiago. Horregatik, bada, Machiavelli-ren obra inmorala baino gehiago amoral da.

Machiavelli-ren ondarea

Machiavelli-ren pentsamentuari kritikarik ere egin zaio. Normala zen bezala. Filosofiaren aldetik benetan sakona izateko, praktikoa izan zela egozten zaio. Hori horrela bada ez bada, onartu beharra dago bere garai-kideen artean, politikari dagokionez bederen, berak erakutsi zuela ikuspegi zabala eta argiena European gertatzen ari ziren gertakari politikoaren aurrean.

Arestian esan bezala, Machiavelli-k politikari zuhur batek erabil ditzakeen

indar gisa gogoematen zituen gizartearen faktore moralak, erlijiosoak eta ekonomikoak eta honek, noski, balioen ordena normala ezezik, eraginkortasun kausalaren ohizko ordena ere zilipurdikatzen ditu. Azken batean, erizpide hau praktikan jokabide normal bilakatu da gaurko politikagintzan, nahiz eta deklarazio ofizialetan besterik agertu. Hemen ere garbi ageri da Machiavelli-ren eragina.

Bestalde, pentsamendu politiko modernoan Estatuari ematen zaion esanahiaren sortzaile Machiavelli izan genuen. Estatuak, berau indar antolatu eta bere lurraldean goren gisa ulertuta, gizarte modernoaren erakunderik tipikoen eta indartsuen bilakatu zen. Machiavelli-k, zentzu honetan, garbi ikusi zuen eboluzio politikoaren joera zein zen.

Azkenik, Machiavelli-k inork gutxi bezala arakatu zituen giza izaeran ezkutaturik dauden pasio aitortugabeak. Alderdi honetatik begiratuta, eta hemen Hauser-ek dioena geuregantz, esan behar da Machiavelli Marx, Nietzsche eta Freud-en aintzindari gisa har daitekeela, bera izan bait zen gizarte orotan nagusitzen den moral bikoitza argitan jartzen lehena. Moral bikoitz hau honela polariza dezakegu: batetik ustiatzaileak eta bestetik ustiatuak, indartsuak eta ahulak, eta horrela.

Bibliografia laburra:

GRANADRA, M. A.; *Maquiavelo*, Baranova, Bartzelona, 1981.

LEFORT, C.; *Le travail de l'oeuvre Machiavel*, Gallimard, Paris, 1972

MAQUIAVELO; *El Príncipe*, Edaf. Madril, 1984;
Euskaraz: *Printzea*, Iñaki Azkunek itzulia, Elkar.

PREZZOLINI, G., *Maquiavelo*, Pomaire, Madril, 1968

SABINE, G.; *Historia de la teoría política*, Fondo de Cultura Económica, Madril, 1974.